

Gero eta jende gehiago biltzen da Usurbilgo Santo Tomas azokan

Jende asko ibili zen pasa den igandeko Santo Tomas azokan. Talo zein txistorra pintxoak jan eta bertako ekoizleek egindako sagardoa dastatzeko aukera izan zen. Herri kirol saio ederrarekin amaitu zen azken urteotako azokarik jendetsuenetakoa.

Babarrun ekoizleek lehiaketara aurkeztutakoa ikusi eta bertako sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera urtean behin bakarrik izaten da, Santo Tomaseko azokan. Aurten, sagardogileen lehiaketan, 20 izan dira aurkeztu direnak. Lehiaketan izena eman zuten babarrun ekoizleak, ordea, 34.

Babarrun ale onena aukeratzeko, Tolosako Babarruna elkarteko kide bat izan zen epaimahaian. Aurten, Juan Karlos Balerdiren babarruna izan da lehen saria eman duena. 150 euro eta txapela eraman zituen. Irudian duzue Balerdi, seme-alabekin, saria hartzeko unean. Bigarren Jose Ramon Ibarguren izan zen. Txokoaldeko Irundegi baserrikoak 80 euro eskuratu zituen. Hirugarren saria Manuel Aizpuruak jaso zuen. Aginagako Ibai Ertz etxeokarentzat izan zen 50 euroko saria.



NOAUAIK ANTOLATZEN DU URTERO SANTO TOMAS EGUNEKO AZOKA.

Sagardo lehiaketan, Anburu baserrikoa izan zen nagusi (150 euro eta txapela). Bigarren, Zubietako Etxeberri baserriko sagardoa (80 euroko saria) eta hirugarren Olanoenea baserrikoa (50 euroko saria).

Taloa, txistorra, gaztainak...

DBH4ko ikasleak txistorra pintxoak saltzen aritu ziren. Ikasturte amaierako

bidaia ordaintzeko kamisetak ere jarri zituzten salgai.

Bilgunekoek, ohi bezala, lan handia izan zuten taloa egin eta saltzen. Gaztainak ere banatu ziren. Horretaz aparte, Egunkariaren aldeko postua jarri zuten Dema-plazan eta Erraustegiaren Aurkako Plataformak mural lehiaketara aurkeztu diren lanak ikusgai jarri zituen.

Azokan sarituak izan ziren babarrun ekoizle eta sagardogileak

BABARRUN LEHIAKETA

1. **saria:** Juan Karlos Balerdi, Usasku baserrikoa. Kalezar.
2. **saria:** Jose Ramon Ibarguren, Irundegi baserrikoa. Txokoalde.
3. **saria:** Manuel Aizpuru, Aginagako Ibai-Ertz etxeokoa.

SAGARDO LEHIAKETA

1. **saria:** Jakoba Errekondo. Anburu baserria, Aginaga.
2. **saria:** Ramon Urdanpilleta. Etxeberri baserria, Zubiet.
3. **saria:** Antonio Mari Olano. Olanoenea baserria, Txikierdi.



BABARRUN ZEIN SAGARDO LEHIAKETAKO SARIAK BANATU ETA BEREHALA HASI ZEN HERRI KIROL SAIOA DEMA-PLAZAN. HARRIA JASOTZEN JAKOBA OTEGI ARITU ZEN ETA, AIZKOLARI LANETAN, ETXEBESTE ETA TXAPARTEGI.